

PRENTSA-OHARRA

César Cereceda Lasantak irabazi du Iruñarrivial lehiaketaren III. edizioa

Komunitate Garapeneko zinegotzi ordezkari Esther Cremaesek 600 euro banatu ditu material informatikoarekin trukagarriak diren saritan

Joan den maiatzaren 18an, ostiralean, César Cereceda Lasanta irabazle suertatu zen Gaztediaren Etxean egindako *Iruñarrivial* lehiaketaren III. edizioan, non 16 gaztek parte hartu baitzuten. Cerecedak eramanen du material informatikoarekin trukagarria den 200 euroko opari-txartela. Gaur arratsaldean, Iruñeko Udaleko Komunitate Garapeneko zinegotzi ordezkari Esther Cremaesek sariak eman dizkie berari eta edizio honetako beste saridunei ere. Sariak 600 euro jotzen dute guztira.

Lehiaketaren bigarren eta hirugarren postuan gelditu dira Marina Alcalde Antón eta Javier Iriarte Zuñiga, eta 150 eta 100 euroko opari-txartelak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Erantzun behar izan zituzten galderen artean, esate baterako, honako hauek zeuden: zein urtetan hasi zen Gaztediaren Etxeko *Berriemaileak* programa; Iruñeko ibaiak edo Nafarroako hiriburuarekin senidetutako hiriak.

Hiru sari horiez gain, Adrián De la Gracia Méndezek eta Sara Liras Borgek, Arte Eskola (BLH) ikastetxeko berriemaileek, sari bana jaso dute. Epaimahaiaren iritziz, haiek egin dute *Iruñarrivial* lehiaketa sustatzeko kartelik onena, eta material informatikoa eskuratzeko 75 euroko truke-txartel bana eskuratuko dute.

Iruñarrivial Gaztediaren Etxeko ziber-ikasgelaren lehiaketa bat da, zeinetan hiriko historia eta gaurkotasunari buruzko 40 galderari erantzun behar baitzaio, formulario digital baten bidez eta Interneten nabigatuta. Xedea da 14 eta 18 urte bitarteko gazteek erakusteabizi diren ingurunearen gainean dakitena, eta betekizun bakarra da helbide elektronikoa edukitzea. Galderak ahalik eta denbora laburrenean erantzun behar ziren.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 24an

